

## **ALTZAKO ALARDEA 1635.URTEAN**

---

*El alarde de 1635. Hoy en día la palabra Alarde la identificamos con las fiestas de Irun y Hondarribia. Sin embargo, en el pasado, cuando el régimen foral tenía plena vigencia, el alarde era una práctica generalizada en todas las poblaciones y tenía un sentido de autodefensa civil que tenía como marco de actuación la provincia. En este documento de 1635 se levanta acta del alarde que se hizo en Altza defender Gipuzkoa ante una prevista confrontación militar entre Francia y España. Por otro lado, el documento nos da noticias de quienes eran los altzatarras de entonces y su categoría social.*

Egun, alardeak Irungo eta Hondarribiko bizilagunek bakarrik burutzen badituzte ere, Antzuolan eta Elorriion zenbait aztarnak geldituz, Foruek indarrean zirauten bitartean ospakizun hauek behar-beharrezkoak ziren gure herrietan.

Behar honen nondik-norakoa ulertzea oso erraza da, Lurralde Historikoen babesia biztanleriaren esku baitzegoen; ez ziren indar profesionalak, bere etxea defendatzeko armak hartzen zitzuten zibilak baizik, lana probintziako eremura mugatuz. Indarra, tokiaren ezagutzan eta defentsaren premian zetzan, bere eraginkortasuna ziurtatzeko, urtean behin armen egoera ona eta bizilagunen prestakuntza saiatzea ezinbestekoa zelarik.

Egoera politikoen arabera, ‘centralismoaren’ presioa Foruen aurka adibidez, alardea harrotasunaren aldarrikapenean ere bilaka zitekeen. Lurralde bakoitzak bere antolakuntzaren jabe zen heinean, Erresumako gobernuak errespetatu behar zituen Foruak. Ez soldaduzkarik, ez ordezko zerbitzurik, ez armada iraunkorrik; euskaldunek bila zezaketen bere lana frantziar zein españiar armadeetan, baina, orokorrean, ez zuten zertan zerbitzatu bertan<sup>1</sup>. Dena den, Erresumako ejerzitoak bazuen Gipuzkoan egoterik, toki militarrak ziren Hondarribi eta Donostiako gazteluetan.

1.- Norberaren arrazoiaz gain, aurki dezagun hemen Euskal Herrian hain garatuta dagoen soldaduzkarekiko nazkaren sustrai historikoa; gaur egun (1995eko azaroa) bi altzatar, beste hogeい bat lagunekin, Martutenen daude preso INTSUMI-TU izateagatik.

Ezin da ahantzi, bestalde, lurrardearen kokapena: Europa —eta Mundua— menderatzea bilatzen, familia liskarrak sortzen, eta ‘barne’-batasunarutz etengabe garatzen ari diren bi erresuma artean. Honen ondorioz, Euskal Herria, eta Gipuzkoa bereziki, bere nahi eta beharrekin bat ez zetozen hainbat guda ezagutu behar izan duela, baita ejerzito arrotzen joan-etorriak ere.

1635. urtea, hots, gure agiriarena, egoera honen islada izan daiteke. Espainako ejerzitoak Suediako garaitu ondoren Nordlingen, Frantziak ‘Hogeita hamar urteko’ gerran partehartzea erabakitzentzu du urte honetan.

Roselló kataluniarra eta Gipuzkoa alerta egoeran jartzen dira, Olivares Konde-Dukea gobernu-buruaren portaerak eta politikak izugarrizko gatazka sortuko dutela Catalunya aldean.

Guri dagokigunez, Espaina Ziburu, Urruña eta Donibane Lohitzunen sartu zen 1636. urtean, baina Frantziako erasoak 1638ko uztaila arte ez da gauzatuko; Hondarribian alardearen inguruan ospatzentzu duten jaia, egun horietan eratutako defentsa sutsua eta bere ondoriak omentzen da.

Egoera honetan Altzako biztanleriaren alardea normaltzat jo dezakegu.

Altzan, alardearen burua Donostiako alkateak behar du izan, agintari nagusia —behintzat urte honetan—; hau dela eta bertaratzen da ‘errebibista’ pasatzeria.

Ondoren datorkigu zerrendak, Altzako bizilagunen artean hedatuta zegoen ierarkiaren berri ematen digu. Etxe bakoitzak bidalitako gizonezkoa, 18 eta 60 urte bitartekoak, azaltzen zaigu zerrenda, ez, ordea, edozein eratan. Udaletxeen, elizan, e.a.-ren mantentzen zen begirunea argi eta garbi topatzen baitugu.

Beraz, ez da kasualitatea zerrendako lehendabiziko tokietan Berra, Kasares, Arzak edota Kastilungo etxekoak aurkitzea.


Gainera, aurreneko izenak bere etxe edo baserriko jabe dira, hurrengoak maizterrak izanik. Azkenik, errolda ixten duena ez da bertako bizilaguna, ez da besteek dituzten behar eta eskubide guztiak jabe, biztanle maila besterik ez du; horregatik, ez da harritzeko danborjolea izatea, gainrakoak armadunak diren bitartean. —bide batez, parada ederra eskeintzen digu zerrendak Altzako nekazal egituraz konturatzezo—.

Hauxe ditugu ba, 1635eko uztailak lehena Altzan zehar ‘maniobretan’, desfilatzen eta tiro praktikak egiten ibili zirenak. Gerra izatekotan, haiei zegokien Altzako aitonensemeeen ohorearen aintzindari izatea Gipuzkoako mugak babesten.

## **PARROQUIA DE SAN MARCIAL**

### **1.º - Libro de Cuentas**

1635.- “En primero de julio de 1635, día domingo, a las 2 horas después de mediodía, hizieron los vecinos y moradores de la tierra y lugar del Alça, alarde y muestra de la gente y armas, que abía en la dicha tierra, ante Joan de Leyça, alcalde ordinario de la villa de San Sebastián, y el capitán Lorenzo de Urbieto, vecino de la dicha villa, se allaron los siguientes vecinos armados”.



"Altza, Erreenteria eta Lezo" H. Wilkinson-en grabatua (1837). KUTXA.

### Armados: (f. 31)

Domingo de Berra, dueño de la cassa de *Berra*, diputado armado.

Sebastián de Cassares, dueño de la cassa de *Cassares*, diputado armado.

Juan de Arçac, dueño de la cassa de *Arçac*.

Jacue de Arçac, dueño de la cassa de *Arçac de yusso*.

Joan López de Arnaobida, hijo de la cassa de *Castillun*.

Domingo de Adúriz, dueño de la cassa de *Acular*.

Antonio de Arçac, dueño de la cassa de *Tomasena*.

San Joan de Berra, dueño de la cassa de *Carbuera de jusso*.

Domingo de Sius, dueño de la cassa de *Sius*.

Christóbal de Echeberría, duño de la cassa de *Amoreder*.

Joanes de Cuaznabar, dueño de la cassa de *Ayet*.

Miguel Martínez de Echebarría, dueño de la cassa de *Aduriz*.

Francisco de Sius, dueño de la cassa de *Siustegui*.

Joanes de Migueltorena, casero de *Gomiztegui*. (f. 31)

Batista de Yrigoyen, cassero de *Marimiranda*. (f. 31v)

Joan Pérez de Otaço, cassero de *Joanchorena*.

Joanes de Bonaçategui, dueño de la cassa de *Yllarradi*.

- Francisco de Larrachao, dueño de la cassa de *Sasuategui*.  
 Joanes de Otaço, cassero de *Papin*.  
 Joanes de Yriarte, *molinero de Molinao*.  
 P.º de Estibaos, cassero de *Catalinarena*.  
 Joanes de Ezcurrechea, *molinero de Argollon*.  
 León de Yerobi, cassero de *Pelegrinena*.  
 San Joan de Garaicoechea, cassero de *Eguzquiça*.  
 Batista de Ansa, cassero de *Torrea*.  
 Domingo de Falcorená, cassero de *Marroz*.  
 Joanes de Ezcurrechea, dueña que pretende de la cassa de *Chipres*.  
 Jorge de Barcaeztegui, cassero de *Miraballes*.  
 Esteban de Sarbide, cassero de *Alamulia*.  
 Miguel de Lasarte, cassero de la cassa de *Miranda*.  
 Miguel de Urdinerea, cassero de *Moneda*.  
 Estevan de Ordoz, cassero de *Laguras*.  
 Martín de Ugalde, cassero de Adariz. (f. 31v)  
 Esteban de Ordoz, cassero de *Laguras*.  
 Martín de Ugalde, cassero de Adariz. (f. 31v)  
 Esteban de Alça, cassero de *Burcaiz* (?). (f. 32)  
 Beltrán de Goyenechea, *molinero de la Erreca*.  
 Phelipe de Garaicoechea, cassero de *Arnaobidao*.  
 Joanes de Aduriz, dueño de la cassa de *Yparraguirre*.  
 Domingo de Liçardi, dueño de la cassa de *Liçardi*.  
 Joanes de Çapiayn, hijo de la cassa de *Capiayn*.  
 San Joan de Larrachao, cassero de *Martinotegui*.  
 Pascoal de Larrachao, cassero de la cassa de *Mercader*.  
 Martín de Ansa, cassero de *Ayngelu*.  
 Luis de Yssassa, cassero de *Antondegui*.  
 Joanes de Eleyçalde, cassero de *Pirotegui*.  
 Joanes de Artola, cassero de *Miguel de Yturrieta pasado*.  
 Nicolás de Aldaba, cassero de *Artola*.  
 Francisco de Estibaos, cassero de *Garrostegui*.  
 Joanes de Echeberría, cassero de *Ubegui*.  
 Martín de Arracoiz, cassero de *Pordeplat*. (sic)  
 Joanes de Amayur, cassero de *la Punta*.  
 Miguel de Yriburri, cassero de *Cornoca*.  
 Francisco de Artola, cassero de *Plazencia*.  
 Ramus de Sierra, cassero de *Tapia*.  
 Joanes de Mercader, cassero de *Buscando*.  
 Martín de Colonjo, cassero de *Soston*.

Joanes de Erramuspe, cassero de *Buenabentura*. (f. 32v)

Joanes de Sierra, cassero de *Yturayndegui*.

P.<sup>o</sup> de Mercader, cassero de *Oloçaga*.

P.<sup>o</sup> de Olaça, cassero de *Hua*.

Joanes de Caminos, cassero de *Catalinachorena*.

Antonio de Arrieta, cassero de *Marioandegui*.

Josepho de Ansa, cassero de *Mirandaburu*.

Martín de Artola, hijo de la cassa de *Algarbe*.

San Joan de Garaicoechea, cassero de *Eguzquiça*.

Martín de Olaça, cassero de *Liçarrategui*.

Miguel de Salaberría, cassero de *Çubicalea*.

### Atambor

Joan de Buen (?), morador en la cassa de *Echecho*. (f. 32v)